

Aurkezpena


# 2013 BAROMETROA

---



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración



EMPLUJU ETA GEDARTE  
POLITIKA SOZIALA  
Fundazio Publikoak eta Komunitate  
Gobernuzko Departamentua

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
Departado de Política Familiar  
y Desarrollo Comunitario



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea


## Fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 1.200 (NC = 95 %, sigma = 1,96, eta Akatsa = +/- 2,82%)
- Inkestak lurraldeka: Araba 400 (+/-4,9%), Gipuzkoa 400 (+/-4,9%) eta Bizkaia 400 (+/-4,9%)
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorako pertsoneri
- Laginketa geruzatua habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin
- Etxeen aukeraketa: ausazko bideen sistema
- 61 laginketa-puntu 29 udalerritan banatuta (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian)
- Laginaren haztapena (eragile zuzentzaileak) lurraldeka, habitat-neurri, adin eta sexuaren arabera, EAEko datuak azaltzean

# 1


## Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?  
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa ez da euskal gizartearen arazo nagusitzat hartzen; izan ere, % 1,2k aipatu du berez, aldeztatik gairik iradoki gabe, Euskadiko arazo nagusi gisa. Guztira, % 7,2k aipatu dute.
- 2012ko datuekin alderatuta, immigrazioaren arazoaren pertzepzioak nabarmen behera egin du, % 11,6tik % 7,2ra. Krisi ekonomiko sakon honetan, hauek dira, herritarren iritziz, Euskadik dituen arazo nagusiak: langabezia, arazo ekonomikoak, klase politikoa, ustelkeria eta iruzurra.
- Berez –aldez aurretik gairik iradoki gabe, alegia– emandako hiru erantzunen artean, EAeko herritarren % 7,2k aipatu dute immigrazioa, honako arazo hauen atzetik: langabezia (% 89,8), arazo ekonomikoak (% 26), klase politikoa (% 21,9), ustelkeria eta iruzurra (% 20,4), etxebizitza (% 13), pentsioak (% 10,3), osasuna eta osasun-sistema (% 10,2) eta herritarren segurtasun-eza (% 8).


Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?\*



- Arazoa iradokiz gero, horretarako zerrenda bat eskaintzen da, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen portzentajea handiago da: % 11, 7.
- Lehenengo tokian % 3,3k aipatu dute; hau da, hiru aldiz gehiago aipatu dute, Euskadiko arazoei buruz berez emandako erantzunetan baino.
- Hala eta guztiz ere, arazo sozioekonomikoak dira gizartearen kezka nagusiak; izan ere, langabezia eta bizi-kostua ageri dira lehenengo tokian, eta haiekin batera pentsioak, osasun-sistema, aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak...

\*2010. urtetik aurrera eman dugun gaien zerrenda ez da aurreko urteetako. Europako datuekin konparatzeko EUROSTATEk eskaintzen duen gaien zerrenda erabiltzea erabaki dugu.

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien?  
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa arazo pertsonal gisa lehenengo tokian aipatu dutenak % 0,8 dira. Aipatu dituzten arazo guztiak kontuan hartuta, EAEko herritarren % 5,3rentzat immigrazioa arazo pertsonala da, 2013an %6,2 zen.
- Arlo pertsonalean gehien aipatutako arazoak langabezia (% 52,8) eta gorabehera ekonomikoak (% 27,2) dira.

Konparazioa aurreko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak?  
(Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneoak)



- Aurreko barometroekin alderatuta, langabeziari, klase politikoari eta pentsioei lotutako arazoek gora egin dute.
- Immigrazio arazotzat hartzen dutenen portzentajeak 2008ko kopuruen antzeko samarrak dira.

# 2

## Lanaren funtzionaltasuna




Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko:



- Immigrazioari buruzko ikuspegi funtzional eta utilitarista nabarmen higitu da krisiaren inpaktuaren ondorioz.
- 2004an % 80k uste zuten etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2013an, berriz, % 35,4 dira iritzi hori dutenak.
- Halaber, 2004an herritarren % 11k uste zuten etorkinik ez genuela behar sektore ekonomiko batzutan. Aitzitik, 2013an iritzi hori dutenak % 43,9 dira, eta gehiengoaren aukera gisa finkatu da.

Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako:




- Antzeko zerbait gertatu da bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak etorkinek betez gero ekonomiak hobeto funtzionatzen duela dioen adierazpenarekin. 2004an % 63 ados zeuden baieztapen horrekin; aitzitik, 2013an % 36,6 daude ados.
- Ideia hori baztertzen duten herritarren proportzioa % 17tik % 42,4ra igo da. Lehen aldiz, 2004az geroztik, euskal gizartean nagusi da bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak etorkinek betetzeak ekonomiaren funtzionamendu hobea ez duela bideratzen dioen iritzia. Hortaz immigrazioaren funtzionalitate ekonomikoaren ideiak indarra galtzen du.

# 3

## Elkarbizitza

Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdin daude?




- Oro har, EAeko herritarren iritziz, biztanle atzerritarrekin dituzten harremanak ez dira aldatu azken urtebetean (% 56).
- Nolanahi ere, gehiago dira harremanek okerrera egin dutela uste dutenak (% 27) hobera egin dutela uste dutenak baino (% 13).
- Berdin jarraitzen dutela uste duten pertsonen kopuruari ia berdin eutsi zaio, 2012tik puntu erdi bat behera eginda, eta okerrera egin dutela uste duten pertsonen kopurua, berriz, 4 puntu jaitsi da.
- 2012ko datuekin alderatuta, hobera egin dutela uste dutenen kopurua 4 puntu baino gehiago igo da.

# 4

## Kultur-aniztasunaren kudeaketa


Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



Lehen batean, EAEko herritarrak jarrera positiboak dituzte kultura-aniztasunari dagokionez:


- Beste talde etniko batzuk egoteak dakarren kultura-aberastasunaren alde egiten dute: % 53,1 ados daude eta % 22,2 ez daude ados (2012an % 48 ados zeuden eta % 24,6 ez zeuden ados).
- % 57k uste dute etorkinen erlijio-praktikek ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, eta % 23,3k berriz arrisku hori ikusten dute; 2012an herritarren % 51,3 ez zeuden ados, eta % 28,8 ados zeuden.
- 2012ko datuekin alderatuta, kultura-aniztasunaren aldeko jarrerak gora egin dute, eta aurkako jarrerak, berriz, behera.

Euskadin bizikidetza hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- % 59,9k uste dute bertakoek ez dutela ahaleginik egin behar etorkinen ohiturak eta tradizioak ezagutzeko eta haietara egokitzeko (2012an % 58,2k hala uste zuten).
- % 63k adierazi du, erabat onartuak izateko, etorkinek uko egin beharko lieketela hemengo legediarekin gatazkak pizten dituzten erlijio- eta kultura-alderdiei. Portzentaje hori 2012koaren antzekoa da (% 69,4).
- % 72,4k uste dute bai atzerriko etorkinak bai bertako herritarrek ahalegin du behar direla (2012an hala zuten % 66,2k).
- % 83,3k uste dute bertakoek ez dutela ahaleginik egin behar etorkinen ohitura eta tradizioetara egokitzeko (2012an, berriz, % 72,4k hala uste zuten). Beraz ikuspegi asimilazionistagoa gailentzen da.

Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea




- Azken urteotan ikuspegi asimilazionistak indarra hartu du. Horrenbestez, gaur egun EAEko herritarren % 52,9k uste dute ohitura eta tradizio berberak dituzten pertsonak osatutako gizartea hobe dela.
- Herritarren % 25,3 ez daude ideia horrekin ados. 2012an, berriz, portzentaje hori % 22,4koa zen.



# 5

## Eragin sozialak

Esaniezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




- % 64,9k uste du etorkinek gehiegizko onura lortzen dutela gizarte-babeserako sistematik.
- Halaber, % 46,9k uste dute etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dituztela, gero jasotzen dutena baino, eta % 16,1ek kontrakoa uste dute.
- Euskal gizartearen % 49,1ek uste du atzeritarren presentziak segurtasun-eza eta delinkuentzia sortzen dituela. Aitzitik, % 28,2 ez dira iritzi berekoak, eta % 20,6 ez daude ez ados, ez desados.
- % 50,2k uste dute etorkinek soluzio bat ekar dezaketela, biztanleriaren zahartzea dela-eta.

# 6


## Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




- Etorkin guztiek eskubideak izan behar dituztela uste duten pertsonen proportzioei eutsi zaie, edo portzentajeek gora egin dute, salbuespen bakar honekin: botoa emateko eskubidea, 5 puntu behera egin duena.
- Osasun-asistentziari dagokionez, aurreko urteko datuei eutsi zaie; aitzitik, hezkuntzaren eta asistentzia juridikoaren kasuan 5 puntu gora egin dute.
- Aurreko urtetako emaitzekin alderatuta, euskal gizartearen iritzia da eskubideak izateko ezinbestekoa dela egoera erregularrean egotea, osasun-asistentziaren eta hezkuntzaren kasuan izan ezik, izaera unibetsalagoa dutenak hain zuzen ere.
- Etxebizitzari dagokionez, egoera erregularrean egotea babes ofizialeko etxebizitza bat izateko eskubidearekin lotzeak gorako joerari eutsi dio (+3,2 puntu).
- 2012ko datuekin alderatuta, atzerritarrek familia berrelkartzeko eskubiderik eta babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskubiderik ez luketela izan behar uste duten pertsonen proportzioek gora egin dute (+1,7 eta +0,4 hurrenez hurren).

## Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak izatea... Osasuna



- Etorkin guztiei osasun-asistentzia bermatu behar zaiela adierazten duen iritzia nagusi da orain ere.
- Halaber, osasun-asistentzia egoera erregularrean dauden etorkinei soilik eman behar zaiela uste duten pertsonen portzentajeari eutsi zaio eta 2012ko datuen oso antzekoak dira.
- Labur esanda, 2012ko barometroko ildo berari eutsi zaio, osasun-eskubidea guztientzat izan behar duela uste duten pertsonen portzentajeak zertxobait gora egin badu ere (+1,4).

## Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak izatea... Hezkuntza




- Etorkinek hezkuntzaren alorreko eskubideak izateari dagokionez, 2012ko ideari eutsi zaio, baina puntuazioak hobek dira.
- Pertsona guztiak hezkuntza eskuratzeko eskubidea dutela uste dutenen portzentajeak gora egin du (+6) eta eskubide hori egoera erregularrean dauden etorkinentzat mugatzen dutenen proportzioak behera egin du, % 42tik % 38,1era.

# 7

## Immigrazio politika


Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena atzerritar langileen kasurako?



- EAEko herritarren % 8,2 etorkinei sartzeko inolako lege-oztoporik ez jartzearen aldekoak dira, eta % 6,4 edozein bitarteko erabiliz eragoztearen alde ageri dira.
- % 67,1 sartzeko baimena ematearen alde daude, lan-kontraturen bat baldin badute; eta % 13,9 sartzeko baimena ematearen aldekoak dira, baldin eta beste lege-betekizun batzuk betetzen badituzte.
- Dena dela, portzentajeak gorabehera, lan-kontratua, hainbat eta hainbat inkesta eta azterlanetan ikusi bezala, berme nahikotzat jotzen du gizartearen zati handi batek, ziurtasuna eragiten duelako eta susmo txarrak desagerrarazten dituelako.




Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- Euskal gizartearen iritziz, lanik gabe geratzea ez da arrazoi nahikoa atzerriko langileak kanporatzeko (% 52,4).
- EAEko herritarrak zorrotzagoak dira indarrean dagoen legedia betetzeari dagokionez: % 64,6 ageri dira edozein delitu egiten duten atzerritarrak kanporatzearen alde. Jarrera hori zertxobait nabarmenagoa da, 2012ko datuekin alderatuta (+1,3), jarrera xenofoboaren justifikazio eta legitimazioa delituan bertan egongo bailitzan.

## Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?




- Guztiak erregularizatu, "paperak" eman
- Lana dutenak bakarrik erregularizatu
- Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko
- Guztiak kanpora bidali
- Ed/Ee

- Euskal gizarteak orain ere lana eta atzerriko langileak lotzen ditu; horrenbestez, lana dutenen egoera erregularizatzearen alde (bizileku-baimenak ematearen alde) ageri dira (% 51,67). Lotura hori handiagoa da 2012an baino, % 41,1ekoa baitzen orduan.
- Etorkin "irregular" guztiak kanporatu behar direla uste duten pertsonen portzentajea % 16,6ra jaitsi da 2013an; 2012an, berriz, % 21,3 ziren.


# 8

## Tolerantzia-indizea


## Tolerantzia-indizearen bilakaera



## BPGren urtetik urterako aldaketa-tasak (%) EAEn



## Tolerantzia Indizearen bilakaera talde handien arabera



- 2012rekin konparatuz, urtero aztertzen digugun hiru talde handien tolerantzia indizea igo da.
- Nabarmenezkoa da uzkurren taldean ia 8 puntuko hazkundera eman dela euren batazbestekoan.

## Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
45 urte eta gehiago	Adina	0,000	18 urtetik 44ra
Lehen mailako ikasketak	Ikasketak	0,000	Goi- eta erdi-mailako unibertsitate ikasketak
Bizkaia	Lurraldea	0,005	Gipuzkoa
Katolikoak, praktikanteak ala ez	Erlijioa	0,000	Agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak
Erdaldunak	Hizkuntza	0,000	Euskaldunak
Espainiar soilik sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	0,000	Euskaldun soilik edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak
Zentrokoak eta eskuinekoak	Ideologia	0,000	Ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak
Espainiar nazionalistak	Abertzaletasuna	0,000	Muturreko euskal nazionalistak eta euskal nazionalista moderatuak
Hilean 1.000 euro gehienez	Diru-sarrerak	0,000	Hilean 1.800 eurotik gora
Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	0,000	Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak
Langabezian, erretiratuak eta etxeko lanetan aritzen diren pertsonak	Lanbidea	0,000	Ikasleak
Estatus baxua eta erdi-mailako baxua	Estatusa	0,000	Estatus altua eta erdi-mailako altua
Ezkorrak	Baikortasuna	0,000	Baikorrak
Aurreikuspen txarrak dituztenak	Etorkizuna	0,000	Aurreikuspen onak edo normalak dituztenak
Nahasketa eta immigranteen presentzia handia	Auzoa	0,000	Bertako pertsonen gehiengoa
Inolako elkarreraginik ez	Elkarreragin pribatua	0,000	Elkarreragin handia eta zenbait elkarreragin
Inolako elkarreraginik ez	Elkarreragin publikoa	0,000	Elkarreragin handia

## Ondorio nagusiak:

1. Aurkeztutako datuek berriro adierazten digute EAEko herritarrek jarrera anbibalentea dutela atzerriko etorkinekin: ezaugarri ireki eta toleranteekin batera, jarrera herabeagoak adierazten dituzten beste ezaugarri batzuk ageri dira.
2. Lan merkatuari loturiko gaiek eta bertan etorkinen funtzionalitatea neurtzen duten galderek behera egiten jarraitzen dute krisia eta langabeziaren ondorioz.
3. Aipatutako anbibalentzia integrazio-ereduetan islatzen da. Iritzi batzuk aniztasun kulturalaren dohaiak azpimarratzen duten bitartean, beste zenbaitetan jarrera asimilazionistak gailentzen dira. Azken hauek krisi ekonomikoarekin batera gehiago hazi dira.
4. Atzerriko etorkinak iristearekin lotutako gaien artean, ziurgabetasun eta susmo txar handiak sortzen dituen alderdi bat hauxe da: euskal gizartearen ongizate-egoerari eusteari dagokiona. Gizarte-eskubideak edota prestazio ekonomikoen inguruko iritziak dira honen adibide.
5. Datuak 2012. urtekoekin konparatzen baditugu, 2013koak hobeagoak dira eta aurreko urtekoetatik gertuago daude. Dena den, krisiaren eraginak nabaria izaten jarraitzen du.
6. Dena den, immigrazioarekiko jarreretan nabarmentzekoa da krisiaren eragina.



# ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA**  
*Familia Politikarako eta Komunitate  
Garapenerako Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES**  
*Dirección de Política Familiar  
y Desarrollo Comunitario*